

BAKIOKO AHAZTUAK

Hasikerako izenburuau nahasgarria izan leiteke apur bat jantzia dan irakurlearentzako, ze harek euki ez dauko zerikusirik Bakioko hazur-maminezkoakaz, herriko harrizkoakaz





baino. Herriko harrizko ondare apalagoari daragoiogu bertan, bigarren mailakotzat hartuten izan dan ondareari, hatan be.

Herriko administrazioaren aldetik ahaztuak izan dira azkenengo 30 urteotan, batzuk agiri-agirian, ederto ikusteko eran egon arren. Ahaztua izan da be euren atzean herriarentzako euki daben balio historikoa eta, ondorioz, etorkizunerako euki eikeen balio didaktiko-turistikoari onurarik ataraten ez dabe jakin izan.

Zemento-aroan bizi da Bakio gaur egun, bertan sartu-sartuta. Agiriko danez, holango txikikeriak, sentimentalkeriak, ez ei dauke lekurik neurribako urigintza eutsiezin eta iraungatxean (Greenpeace World Report 2008 dalakoan behin eta barrian salatua).

Halan bada, urteotan, zoritxarrez, betiko joan ekiguzan 500 eta 600 urteko herri-ondarearen etxe historikoak, “aurre-rapideak” janda: **Zubiarugoikoa (Tabernazar)**, **Zubieta**, **Ibarrabekoa**, **Zumusu**, **Ondarra**, bestetzuk be barriagoak izanda, **Luisena**, **Portuondo**, **Etxatxu (San Pelaioko Tabernatxu)**, **Arextibi (Zubiaurraldeko Tabernatxu)**, **Areatza-kobenta (Bentazar)**, **Bentabarri**, **Erdikobenta**, **Elexalde**,



Abadetxea, Preztetoria,... Etxeotan egon dira Bizkaiko herri arkitekturearen harribitxiak be, **Zubiaurgoikoa** eta **Zubieta**, esaterako.

Ahamen bada, lehenengo artikulua:

SAN PELAIOKO HIRU ARRIZKO KURTZEAK

Bakioko **Gibelortzagako San Pelaio** auzoan hiru landubako harrizko kurtze zahar egozan, horreetarik bi baino ez dira lotuten gaur egun. Ondinokarren zutunik dirauen kurtzeok honneexek dira: **Oiagako kurtzea** (*oixako kurtzie*) eta **Atxulo kurtzea** (*atxuloko kurtzie*) izenekoak. Biok itsasaldeko hatxen



ganean dagoz, **Atxuloko** hatxen alde banatan, itsasoari begira, itsaso-jagola antzean egon be.

Oiagako harrobia (*oixako kantarie*) handituz joaiala-eta, kendu eben **Oiagako kurtzea** 1972. urtean, galdu ez zedian. Arbeo jaunaren txaletean egon zan gordeta 1979. urtera artean. Urte hatan, harrobia behin betiko gelditu ebenean, Ramon Etxebarrietak ordainduta, atzera imini eban Jose Elorriagak (Josebenta, orduan herriko kontratistea zana) kurtzea lehengo lekuan.

Beste kurtze bat baegoan, hirugarrena, baia oin dala 33 urte, hau da 1978. urteko zezeilean, inok ez dakiala zelan eta zergaitik, galdu zan. Egun batetik bestera bera egoan lekutik nonok erauzita, behearen ganean botata agertu zan 1978. urte haretan hasikeran. Handik hilabete garrenean, inok galdu eragin eutson betiko. Kurtze hori **Larrazain** (*larresiñeko basoa*) izeneko basoan egoan eta horregaitik **Larrazaineko kurtzea** (*larresiñeko kurtzie*) esaten ekion. Kurtze hori be beste bien anterakoa zan eta aitaturako basoan galdutako burdibide baten ondoko munearen ganean egoan, **San Pelaioko** herri-bidetik paraje, beronen ezkerrean egoan burdibidean, gorantza joanda. Burdibide hori **Azeretxogoitia** (*asitxogoitxi*) basetxetik **San Pelaioko** eleizaginokoa zan. Baia, kurtze horrek hiruretan gauzarik interesgarriena eukan beratan, hau da, 1781 urtea idatzita eukala kurtzearen paparrean.

Ramon Etxebarrietak esaten eban azkenengo kurtze hori sano ostonduta egoala, sasiz eta otaz beterik eta, ostondurik. Halan bada, 1973. urtean berak eta Pablo Zurimendik, **Benguriko** etxejoauna Juan Olazar lagun ebela, garbitu ebezan inguruak harik eta **Larrazaineko kurtzea** agirian itzi artean.

1935. urtearen inguruan ondinarren be, **San Pelaioko** aldeko soloak bedeinkatuten ziranean, prozesinoan kurtzerik kurtze egiten zan bedeinkazte hori. **San Pelaioko** eleizatik urten-



da, lehenengo, **Larrazaineko kurtzegino** joan, **San Esteban** baseleizara, gero, **Oiazako kurtzegino**, gero, **Atxuloko kurtzera**, segiduan, eta azkenean, atzera parrokiara. Hori solo-bedeinkatzeori maiatzeko Kurtze Santuaren jaiaren hurrengo domekan egiten zan urtero.

Bestetik, Britania Handiko Foreign Office izenekoan dagozan informazioaren arabera, 1781. urtean korsario ingelesak **Gatzelugatxeko Doniane** eleizea hustu eta bertan lapurretan egin ei eben. Hori ezeze, Bermeoko Udal eta Bizkaiko

Foru Agiritegietan be horren ganeko argibideak badagoz egon. 1781eko irailaren 15ean korsarioak¹ ebilzan **Bakio** inguruan bertako txalupetakoeri burua eragiten. 1782ko aprilaren 2an eta 29an, barriz, korsario inglesak **Gatzelugatxeko Doniane** eleizeari eraso egin eutsoen² ³, eta haren alde eta ingleseri aurre egiteko Bermeoko alkateak 96 gizon bialdu ebazan bertara.

Halan izan bazan, emoten dau orduko jazokera hori gogoan eukiteko imini zirala hiru kurtzeok. Baleiteke.

¹ (“... dijo que la lancha tripulada que paso por devajo del fortín acercandose a las peñas la noche del quince, no es berosimil que se expusiese a un riesgo tan manifiesto como el de sufrir un cañonazo o cañonazos que se le tiraron por parte de esa villa y del fortín de Baquio, y algunos fusilazos que se le pudieron disparar, ni menos arrimarse a que el corsario la hubiese hechado a pique, a no haber llevado el honroso celo de prebenir a las embarcaciones de Baquio y ese puerto de la existencia de dicho corsario...”) (BEUA-842) (42 orr.) (1781.09.27)

² (“... los enemigos corsarios y ultimamente en el dia de aier el mas atroz, pues desembarcaron en el santuario de San Juan de la Peña de la anteyglesia de San Pelaio de Baquio, jurisdiccion de esta villa, y lo saquearon y robaron siendo la hora de las ocho de la mañana; vien que la plata y vasos sagrados se aseguraron trasladandolos en el dia anterior, en la parroquial de San Pelaio, temiendo con probable fundamento la egecucion de este atentado. Se dieron las mas prontas providencias, acudiendo gente armada a aquel santuario, con la fusileria y peltrechos de la casa consistorial de esta villa, y aun la de Baquio hizo un recio fuego para impedir, como impidieron a las dos lanchas enemigas el llevarse dos navios cargados, que vararon en aquel arenal. Los dias anteriores apresaron tres con cargas de mucho valor en esta cercania. En estos fortines se ha travajado y trabaja de noche y dia con mucho dispendio de reales y gasto de polbora y peltrechos. Los enemigos permanecen a nuestra vista...”) (BFAA Q-00606/064) (34 orr.) (1782.04.03)

³ (“Memoria y razon del gasto que se origino el dia beinte y nueve de Abril, que entraron en la ermita de San Juan de la Peña los ingueleses y con jente, que asistieron con orden del señor alcalde y sindico de esta noble billa es segun se sigue: quarenta y ocho azumbres de clarete que se gastaron de refresco entre nobenta y seis hombres, que fueron al asistimiento y socorro del santuario de San Juan de la Peña a defender de los enemigos Garnesis...”) (BEUA-842) (31 orr.) (1782.04.29)

BIBLIOGRAFIA

- BERMEOKO UDAL AGIRITEGIA (BEUA), 842 - Cuentas Municipales 1779-1786.
- BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOA (BFAH), Q-00606/064 – Expedientes de reconocimiento de fortines 1765-1797.
- RAMON ETXEBARRIETA, “La Cruz de Aitzulo en Baquio”, in El Correo Español, 09.05.1974.
- RAMON ETXEBARRIETA, “Baquio: Larresiñeko Gurutze, una cruz histórica que ha desaparecido”, in El Correo Español, 18.04.1979.
- PABLO ZURIMENDI, “Las otras ermitas de Bakio”, 1984.
- PABLO ZURIMENDI, “Cincuenta paseos, excursiones o marchas por Bakio”, 1988.

*Iniaki Martiartu
Bakio
2011ko garagarrilean*